

# Hiriaren bizitza

**Javier Rojo**

"Manhattan Transfer"

John Dos Passos

euskaratzailea: Marcelo Lopez Arana / Inaxio Lopez Arana

Ibaizabal, 1999

John Dos Passos-ek (1896-1970) hiri baten hazkunde neurrigabearen gertatzen den giza-mosaikoaren deskripzio bikaina utzi du Manhattan Transfer-en. Paradisura heldu direlakoan, pertsonaia batzuk New York-en aurkitzen dira XX. mendearen hasiera, bizitza berri bati ekiteko asmoz. Baina paradisuetan ere estoldak omen daude, eta hiriaren hazkunde-mugimenduekin bat egiteko gai ez diren pertsonaiak zokoratuta geratuko dira. Nobelan zehar pertsonaia hauen gorabeherak ikusiko ditugu, nola beraien bizitzak erlazionatzen diren, nola batzuek gailurra iristen duten bitartean besteak porrotaren aurrean suertatzen diren. Kazetariak, kontrabandistak, hiriko politikariak, sindikalistak, edozein lan hartzeko prest dauden gizajoak, gora egiten duten bankariak, arrakasta lortu nahirik bizitza hondatzen duten bigarren mailako aktoreak... honelako pertsonaiak beterrik dago nobela, bakoitza bere tokiaren bila. Hainbeste pertsonaiaren bizitzak kontatzen direlarik, irakurlearentzat piska bat zaila izan daiteke hari hauen guztien nondik-norakoak galdu gabe jarraitzea. Garrantzitsuena, ordea, giro orokorra izanik, oztopo hori erraz gainditzen da. Idazleak hiri munstro baten ikuspegi ezkorra egin digu, baina itxaropenari ate guztiak itxi gabe.

*El Correo*, 2000-05-10